

Gozatu bere  
ondarea

**AIARALDEA**  
EL DESTINO ES EL PAISAJE  
HELMUGA PAISAIA DA

Leku asko ezin dira harro egon ingurune natural pribilegiatu batean historiaz betetako ondareaz.

**Aiaraldeak** familia nobleen historiaz eta erlijio-gurtzaz beteriko jauregi, oinetxe, eta baseliza eta elizak ditu.

**Kexaako Monumentu Multzoa** da horren erakusleetak bat. Aiaratarren familiari dago lotuta hasi-hasieratik, eta ondare-espazio berean dagoen profanoaren eta erlijiosoaren erakusle da.

Eta erlijioari dagokionez, Ermualde dugu, **Ermuko Andra Mariaren Santutegiak** eta **Santa Luzia basilizak** osatzen duten duten ingurune paregabea.

**Laudio/Llodio** edo **Amurrio** hiri handiak aberastasuna sortu duen industria-ingurune batean eraiki badira ere, **Arespalditzak**, Okondok eta, batez ere, **Artziniegak** edertasun handiko eta ondare-interes handiko hiri-gune historikoak dituzte.

Ez dugu ahaztu behar museo-eskaintza askotarikoa eta interesgarria dela.

## Ondare Historikoa

### AYALA / AIARA

- 1 Luiaondo Malato zuhaitza
- 2 Murga Dorretxea
- 3 Olabezar Saraubeko zelaia
- 4 Quejana / Kexaa Monumentu-multzoa
- 5 Añes San Bizenteko portada erromanikoa

### AMURRIO

- 6 Santa Maria elizako erretaula
- 7 Mariaka dorrea
- 8 Elexazarreko aztarnategi erromatarra

### ARTZINIEGA

- 9 Ortiz de Molinillo eta Velascoren dorretxea
- 10 Hirigune historikoa
- 11 Ama Agustindarren komentuarien portada
- 12 Pablo Respaldizaren sutegia
- 13 Arteako Andra Mariaren Santutegia

### LAUDIO / LLODIO

- 14 Anuntzibaiko jauregia, zubia eta burdinola
- 15 Katuxa jauregia
- 16 Lamuza parkea
- 17 Ermualde
- 18 Ugarte dorretxea

### OKONDO

- 19 San Roman eliza



### Natura-ondarea

- 1 Nerbioiko ur-jauzia
- 2 Gorobel mendilerroa (Fraidearen tontorra, Txarrazo, Tologorri eta Ungino)
- 3 Maroñoko urtegia
- 4 Esquina de Rubén behatokia
- 5 Menoioko Etxaurren basiliza
- 6 Ganekogorta



### Txakolin-upategiak

- 1 Artomaña (610 33 41 37)
- 2 Astobiza (607 40 03 21)
- 3 Beldui (685 75 76 48)
- 4 Garate (659 06 03 91)
- 5 Txikubin (Murga dorretxea) (659 01 00 17)



### Ibilbideak

- 1 GR 284 Sopeñako Errege Bidea
- 2 Nerbioiko Parke Lineala
- 3 Burdin Hesiaren ibilbidea
- 4 PR-A 37 Aspaltza Zirkularra



### Birding

- 1 Gorobel mendilerroa



### Museoak

- 1 Amurrio Manuel Acha Likorearen Museoa (945 39 37 04)
- 2 Artziniega Etnografia Museoa (945 39 62 10)
- 3 Artziniega Santxotena tailer-museoa (945 39 66 64)
- 4 Artziniega Eleiz Museoa (945 39 60 66)

Lehentasunezko jarduketarako eremuak, Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarekin.  
Zonas de Actuación Preferente con la financiación de Gobierno Vasco.



**EUSKADI**  
BASQUE COUNTRY

araba álava  
foru aldundia diputación foral



### INFORMAZIOA

Amurrio (945 39 37 04)  
Laudio/Llodio (94 403 49 30)



www.aiaraldea.org

Conjunto Monumental de Quejana



Kexaako Monumentu Multzoa



Saraubeko zelaia



Arteako Andra Mariaren Santutegia

## museoak

Kultura eta nortasuna



Artziniegako museoa

**Artziniegako Museotik** hasiko gara. Eraikin historikoa da. Birgaitu egin zuten, eta, gizakiari eta haren bizimoduari (landa- zein hiri-bizimoduari) eskainitako hamazazpi areto zabaletan dago banatua. Kanpoaldean, aldi baterako erakusketak eta emaldi kulturalak egiten dira. Herri horretan bertan, oso interesgarria da **Pablo Respalditzaren sutegia** bisitatzea. Bertan, burdina eskuz nola lantzen zen erakusten dute.

**Kexaako Monumentu Multzoa** Euskal Herriko Monumentu Nazional gisa katalogatu zuten 1984an. Oraindik mantentzen duen Erdi Aroko izaera sendoagatik nabarmentzen da. Aiaratarren familiari lotuta dago hasiera-hasieratik, eta honako hauek osatzen dute: **Adatseko Ama Birjinaren Dorre-Kapera**, **San Juan Bataiatzailearen eliza** eta **Aiaratarren Jauregi Gotortua**. Jauregi hori Fernán Pérez de Ayalak eraiki zuen XIV. mendean.

Beheko solairuan, **Aiaratar jaun-andreen hilobiak** eta XIV. mendeko erretaula gotikoaren erreplika bat daude. Jatorrizkoa gaur egun Chicagon dago.

Aiaratarrei dagokienez, gogoratu behar dugu beren lurrek foruak, erabilerak eta ohiturak izan zituztela, inguruko eskualdeek ez zituztenak, eta ez Arabari ez Bizkaiari atxikita ez zeudenak. Zergarik ez ordaintzeko pribilegioa izan zuten, 1700. urtean Borboi Etxea iritsi zen arte. **Saraubeko zelaian** (Zaraubeko zelaia izenez ezaguna) aukeratzen zituzten beren agintariak, alkateak, gobernadoreak... Leku gurtua da Euskal Herri osoan, eta erdiko mahai bat eta harrizko banku batzuk ditu.

Historia handiko beste leku bat **Artziniegako Hirigune Historikoa** da. Hiribildu hau 1272an sortu zuten Violante Aragoikoak, bere senar Alfonsso X.a

Jakintsuarekin batera. 1996an, Monumentu Multzoko Historikoa izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak. Dorretxeen eta jauregien artean, bertara bizitzera etorri ziren nobleen 47 armari heraldiko ere ikus daitezke; izan ere, Artziniega Gaztelaren eta Bilboko eta Kantabriako itsas-portuen arteko merkataritza-bideen elkargunea zen. Edertasun handikoa da, halaber, **Igokundeko Ama Birjinaren elizako** gangen barrualde margotua.

Herri horretan bertan dago **Arteako Andre Mariaren Santutegia**. Izen hori jarri zioten artzain gaztetxo bati Ama Birjina arte baten zuloan agertu zitzaioelakoan. Nahiz eta hasieran arbaso erromatarrek eta, ondoren, kristaututako aurre-erromanikoko eta erromanikoko eraikinak izan zituen, XV. eta XVI. mendeetan jada estilo gotiko errenazentistan eraiki zen oinplano berri bat izan zuen, gaur egun ikusten duguna. Bere Erretaula Nagusia eta Sagrarioaren Tenpletea nabarmentzen dira, biak XVI. mendekoak.

**Ermuko Andra Mariaren santutegiak** eta **Santa Luzia baselizak** osatzen dute paraje natural pribilegiatu batean kokatutako beste multzo interesgarri bat. Lekuak **Ermualde** izena du, eta Laudion dago. Euskal estilo gotikoko eraikuntza da, XV. mendekoa. Tailu eta margo-lan garrantzitsuak dituen erretaula nagusi platereskoa du.



Artziniega



Ermualde



Santxotena tailer-museoa

**Santxotena tailer-museoan**, iritziak trukatu ahalko dituzu Jorge Oteizaren ikasle Xabier Santxotena artistarekin, eta hori esperientzia paregabea eta, beste museo batzuekin alderatuta, berezia da. Artistak bere obrak egiten dituen tailerretan ere sartu ahal izango zara.

Amurrion **Likorearen Museoa** duzu, Euskal Herriko mota honetako lehen museoa. Manuel Acha destilategien jatorria (1831) ezagutuko duzue. 1880az goerotik dago Amurrion. Destilategi horietatik likore ospetsuak atera ziren, hala nola Karpy likorea edo Sierra de Orduña patxarana. Enpresa hori Europako familia-enpresa zaharretako bat da, eta orain 150 erreferentzia baino gehiagorekin ari da lanean.

**Artziniegako Eleiz Museoa Artearen** Andre Mariaren Sant utegian dago, eta balio handiko artelanak ditu, hala nola argimutil ugari edo santutegiko erloju zaharren makineria.

## Indianoen etxeak, itsasoz haraindiko luxua



Eskualdeak zeharkatuz gero, beren historiaren parte diren etxe bereziak aurkituko dituzue. **Indianoen etxeak** dira, Argentinan, Uruguain, Mexikon eta Kuban emigrante izan zirenek eraikitzen zituzten etxeak. Sorterrira aurreztutako diruarekin itzultzen ziren, eta, beraz, herrikoek baino erosteko ahalmen handiagoa izaten zuten. Baina denak ez ziren itzuli, eta denak ez ziren aberats egin Ameriketara. Luxuzko etxeak dira, kanpotik zein barrutik bertan bizi zirenen botere ekonomikoa erakutsi nahi zuten etxeak. Batzuek kapeira eta etxeko langileen logelak ere izaten zituzten.



Igokundeko Ama Birjinaren eliza



Museoei buruzko informazio gehiago